

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

2460

AGINDUA, 2025eko maiatzaren 21ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, Urnietan (Gipuzkoa) dagoen «Salesianos Urnieta» lanbide-heziketako ikastetxe pribatu integratuaren baimena aldatzeko dena.

«Salesianos Urnieta» ikastetxe pribatuaren ordezkariak hasitako espedienteaz aztertu da, zeinaren bidez eskatzen baitu baimena alda dakiola lanbide-heziketako oinarritzko mailako heziketa-ziklo berri bat emateko.

Espediente horren izapideak araudiak ezarritako prozedura jarraituz egin dira; gainera, indarrean dauden arauak eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta arlo horretan eskumena duten erakundeek egin diote txostena.

Arau hauek ikusi dira: apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua (apirilaren 9ko BOE), araubide orokorreko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak eskaintzeko baimenak ikastetxe pribatuei emateari buruzkoa, otsailaren 12ko 131/2010 Errege Dekretuaren bidez aldatua (martxoaren 12ko BOE); uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretua (uztailaren 22ko BOE), Lanbide Heziketako Sistemaren antolamendua garatzen duen uztailaren 9ko 658/2024 Errege Dekretuak aldatua (uztailaren 10eko BOE); otsailaren 28ko 127/2014 Errege Dekretua (martxoaren 5eko BOE), hezkuntza-sistemako lanbide-heziketako ikasketen Oinarritzko Lanbide Heziketaren alderdi espezifiko batzuk arautzen dituen, hamalau oinarritzko lanbide-titulu onartzen dituen, haien oinarritzko curriculumak finkatzen dituen eta honako hau aldatzen duena: abenduaren 4ko 1850/2009 Errege Dekretua, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarritako irakaskuntzei dagozkien titulu akademikoak eta lanbide-tituluak emateari buruzkoa; maiatzaren 21eko 498/2024 Errege Dekretua (maiatzaren 28ko BOE), oinarritzko lanbide-heziketako tituluak ezarri eta gutxieneko irakaskuntzak finkatzen dituzten errege-dekretu jakin batzuk aldatzen dituen; uztailaren 7ko 104/2016 Dekretua (abuztuaren 11ko EHAA), Oinarritzko Lanbide Heziketako hogeitituluren curriculumak ezartzen duena, Euskal Autonomia Erkidegoan emateko; eta gai horretan aplikatu beharreko gainerako legeak. Horiek horrela, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.— Jarraian zehazten den ikastetxe pribatuaren baimena aldatzen da 2025-2026 ikasturterako.

Ikastetxearen kodeak: 012572 (EAE) eta 20005270 (unibertsala).

Izen generikoa: Lanbide-heziketako ikastetxe pribatu integratua.

Izen espezifikoa: «Salesianos Urnieta».

Titularra: Padres Salesianos.

Helbidea: Ergoien, 6.

Udalerria: Urnieta.

Lurralde historikoa: Gipuzkoa.

Merkataritza-zerbitzuetako oinarritzko mailako heziketa-ziklo bat emateko baimena ematen da.

2. artikulua.— Baimendutako lanbide-heziketako irakaskuntzen ondoriozko osaera.

1.— Lanbide-arloa: arte grafikoak.

a) Arte grafikoak, oinarritzko mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.

b) Inprimaketa grafikoa, erdi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.

c) Argitalpen inprimatuen eta multimedia-argitalpenen diseinua eta edizioa, goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.

2.– Lanbide-arloa: merkataritza eta marketina.

a) Merkataritza-zerbitzuak, oinarrizko mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.

3.– Lanbide-arloa: elektrizitatea eta elektronika.

a) Instalazio elektriko eta automatikoak, erdi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.

b) Automatizazioa eta robotika industrial, goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.

c) Sistema elektrotekniko eta automatizatuak, goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.

4.– Lanbide-arloa: instalatze- eta mantentze-lanak.

a) Mantentze-lan elektromekanikoak, erdi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.

3. artikulua.– Ikastetxeak indarrean dagoen araudia bete beharko du, agindu honen bidez baimentzen zaizkion heziketa-zikloak irakasteko eskatzen diren ikaspostuen kopuruari, ekipamenduari eta irakasleen titulazio akademikoari eta hizkuntza-eskakizunari dagokienez. Bestela, emandako baimena baliogabetuta geratuko da.

4. artikulua.– Ikastetxeak Eraikuntzako Kode Teknikoa bete beharko du, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartua, bai eta indarreko legeriak ezartzen dituen higie-, akustika-, bizigarritasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak ere. Ikastetxeko titularrarena izango da baldintza horiek ez betetzearen erantzukizuna.

5. artikulua.– Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa. Datu pertsonalak tratatu eta «Lanbide-heziketako ikastetxe pribatuen baimenak» izeneko tratamenduari dagokion jardueran sartuko dira.

Arduraduna: Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.

Xedea: Lanbide Heziketako ikastetxe pribatuen erregistro ofiziala. Ikastetxeen irekiera- eta ixte-baimenak, baita emandako baimenetan aldaketak ere.

Legitimazioa:

- Tratamendua beharrezkoa da aplikagarriak diren lege-eginbideak betetzeko.
- 4/2018 Legea, ekainaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzkoa.
- 8/1985 Lege Organikoa, uztailaren 3koa, Hezkuntzarako Eskubidea Arautzekoa.

Hartzaileak:

- Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioa.

Eskubideak: eskubidea duzu datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk baliatzeko ere.

Informazio gehigarria: datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza kontsulta dezakezu gure webgunean: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gar-dentasuna/133300-cap2-eu.shtml>.

Araudia:

– Datuak Babesteko Araudi Orokorra (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=CELEX%3A02016R0679-20160504>).

– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf).

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honetan dagoen baimen-emateak ez dauka bere baitan, inola ere, hezkuntza-itunen araubidearen bitartezko laguntzak lortzea.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, hil biko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko maiatzaren 21a.

Hezkuntzako sailburua,
MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO.